

## AURKEZPENA

Mikel, Izaskun, Ihintz eta Ekhiñe gara, BabyApp izeneko aplikazioaren sortzaileak. Guraso berrientzat aplikazio bat sortzea erabaki dugu, haurdunaldian eta ondorengo etapetan haien beharrak asetzeko baliagarria izan daitekeena. Ezjakintasuna ikusi dugu guraso berriengan eta honen bitartez laguntza eskaini dezakegula ziurtatzen dugu.

Aplikazio hau egitea erabaki dugu, sortu nahi dugun bezalako produktu oso bat ezagutzen ez dugulako, haurdunaldiaren aurretik eta ondoren, mota guztietako gaiei buruzko informazioa familia mota guztientzat eskaintzen duena.

Haur Hezkuntzako ikasleak gara, eta proiektu hau aurrera eramateko nahikoa esperientzia eta informazio dugu, gurasoen eta haurren behar guztiak ezagutzen baititugu. Etorkizunari begira, proiektu bideragarria dela uste dugu, beti egongo direlako haurdunaldiari buruzko informazioa beharko duten guraso-berriak.




 *Baby app* 

## **BALIO PROPOSAMENA**

Haurdunaldian eta ondorengo etapetan, bai haurrak eta bai gurasoek behar batzuk dituztela badakigu, elikaduraren inguruan, osasunaren inguruan, haurraren zainketaren inguruan, hau da, behar biofisiologikoen inguruan gabezia antzeman dugu, eta beste aldetik, behar kogntibo, emozional eta sozialak asetu nahi ditugu. Horren ondorioz, aplikazio honetan behar horiei erantzun bat emateko hainbat baliabide desberdin eskaintzen ditugu.

Bi multzotan sailkatu dugu aplikazioa. Alde batetik, haurdunaldia eta bestetik, haurdunaldi ondorengo etapa. Horrekin batera, multzo bakoitza atal desberdinetan banatu ditugu, beharrei arabera.

Jarraian azalduko duguna kalitatezkoa da, betiere gurasoen eta haurren segurtasunean pentsatuz.



Gure proposamenak izaera kualitatiboa dauka, diseinua nabarmena da prezioa baina.

Aplikazio honekin gurasoei lana erraztea nahi dugu, liburu, web, eta hainbat toki ezberdinetatik informazioa bilatu beharrean, toki finko (mugikorra, ordenagailua, tableta...) batean beraiek behar duten informazio gehiena eskura izango dute. Edozein familiaren maila ekonomikoren eskura egongo da.

App hau oso erraza izango da informazioa eta beharrak bilatzerako orduan, gainera oso bisuala izango da. Ez da beharrezkoa izango gaitasun digitalak asko menperatzea.

Aipatu dugun moduan, gure aplikazioak errazten du haurdunaldiaren inguruan eta ondoren jakin behar den informazio guztia jasotzeko eta hori da besteengandik desberdintzen gaituena. Baita ere, merkatua ikusi ondoren, konturatu gara horrelako aplikazio osaturik ez dagoela.